

**EUSKALTZAINDIAREN ARGITALPENAK**

**Aurkezpenak**




## **LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA ELEBERRIAREN EKARPENA XX. MENDEKO EUSKAL NARRATIBAREN TESTUINGURUAN**

Maiatzaren 23an, *Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. Mendeko euskal narratibaren testuinguruan* izeneko argitalpena aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, Donostiako Doctor Camino liburutegian. Argitalpen hori *Euskera* Euskaltzaindiaren Agerkari ofizialaren etapa berriaren lehen zenbakia da, eta haren bitartez *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberria argitaratu zeneko 50. urteurrenaren karietara, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» omendu nahi izan du Akademiak. Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak, Jean Haritschelhar Literatura Ierketa batzordeburuak eta Txillardegik berak.

2007an, Euskaltzaindiaren Literatura Ierketa Batzordeak *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriari buruzko hitzaldi-sorta prestatu zuen. Hitzaldi horien emankizuna Euskal Herriko Unibertsitatearen 2007ko Udako Ikastaroen barnean txertatu zen, biltzar moduan. Bertan, Euskaltzaindiaren Literatura Ierketa Batzordeak euskal eleberrigintzaren bilakaeran *Leturiaren egunkari ezkutua* idazlanak ekarri zuen berriztapena eta gizartean eragin zuen oihartzuna hartu zituen hausnarketa kritikoa egiteko helburutzat, haren zenbait alderdi jakin aztertzearekin batera. Biltzarraren zuzendaria Lourdes Otaegi Imaz Euskaltzaindiaren Literatura Ierketa Batzordearen idazkaria izan zen.

Egun batzuk geroago, ekainaren 3an, Bilbok Liburu Azokan aurkeztu zen liburua. Egun horretan, euskaltzainburuarekin batera, Sebastian Gartzia Trujillo Literatura Ierketa batzordeko kidea mintzatu zen.






Jose Luis Alvarez Enparantza / Txillardeggi

**LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA**  
eleberriaren ekarpena  
XX. mendeko euskal narratibaren  
testuinguruan

EUSKERA  
2007, 2  
52. liburukia (2. aldia)  
2008, BILBO



## BILBOKO LIBURU AZOKA: 2008

*Bilbon, 2008ko ekainaren 3an*

*Sebastian Gartzia Trujillo*

Jaun andreok, egunon:

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik idatzitako *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren berrogeita hamar urte bete ziren 2007.urtean. Askoren iritziz, *Leturia* da lehen euskal eleberri modernoa. Hori dela eta, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordean, jardunaldi batzuk antolatzea bururatu zitzaigun, *Leturiaren egunkari ezkutuaren* berritasunak eta ekarpena aztertzeko asmoz. Jardunaldi horietan egindako hamaika hitzaldiak Udako Euskal Unibertsitatearen esparruan egin genituen, Donostiako Miramongo jauregian, 2007ko uztailaren 16, 17 eta 18 egunetan eta Euskaltzaindiak, gaur aurkezten dizuegun liburuan, bildu eta argitaratu egin ditu, beste eranskin interesgarri batzuekin.





# Henrike Knörr

1947-2008

## **EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

[www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Txillardegik bere lehen eleberria burutu baino lehentxoago Euskal Herrian zer-nolako eleberriak idazten ziren aztertzen dute lehendabiziko bost hitzaldiek: Jean-Pierre Iratcheten *Antton*, Jose Eizagirrerren *Ekaitzpean*, Yon Echaideren *Alostorrea* eta *Joanak joan* eta Jose Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgain'en*.

Eleberri hauek guztiok 1946tik 1955ra bitartean argitaratuak izan ziren. Ohitura, historia eta polizia-zko eleberriak ditugu aipaturiko horiek guztiok, baserri-munduko narrazioak, euskaldun zaharrek idatzitakoak.

Urtebete geroago, 1956an, Txillardegik goitizendaturiko hogeita zazpi urteko euskaldunberri batek, euskara neutro samarrean, Euskaltzaindian antolatutako lehiaketa batean, *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberria aurkeztu eta irabazle bilakatu zen, hurrengo urtean, hots: 1957an, Euskaltzaindiak berak argitaratu zuena.

Eleberri horretan, lehenengoz, gure tartean, istorioa euskal hiri batean hasi (Donostian demagun) eta Parisen gertatzen da eta eleberrien ohiko korapiloa ez zen mendi edo euskal herri batean suertatzen, protagonistaren barruan baizik, Europar zehar modan zegoen filosofia heterodoxoaren koordinatuetan, gainera: existentzialismo giroan, hain zuzen, eta Leturia, zeinen heriotza (suizidioa ote) ilun geratzen den narrazioan, sinesmenaren eta agnostizismoaren mugan mugitzen da, protagonista koroarik gabeko gizaki arrunta delarik: gu gehienok bezalakoa.

Azken sei hitzaldietan, *Leturia* eleberriaren narrazio osagaiak aztertzen ditugu: literatura genero aldetik Leturia indefinitu samarra da: filosofia narra-



zioa ala narrazio filosofikoa; nola hartu zuten Leturiaren garaikideek testu berri berezi hura; eleberrigile ezezagun horrek nola irudikatu zituen, berrogeita hamar urte direla, orain horren modan jarri zaizkigun gizon eta emakume paradigmak eta erlazioak; zer motatakoak ziren Leturiaren erlijio kezka: sinestun ala agnostiko batenak? zeintzuk ziren literatura testu honen narrazio osagai klasikoen erabilera: denbora, espazioa, subjektoak eta abar...

Baliteke aztertu ditugunez gain, beste azterpuntuak ere interesgarriak izatea, baina bai lehen multzoan, bai bigarrenean aztertu ditugun horiek oinarritzko bezain interesgarriak direla ez digu inork ukatuko... eta, lehen interesatuaren, Txillardegiren beraren iritziz alegia, oso ongi aukeratu eta burutuak izan ditugu.

Txillardegi buru, aro berri bat sortu zen, orain berrogeita hamar urte, euskal eleberrigintzan. Urte luze horietan euskal eleberrigileek zer edo ozer erakutsi badigute, hauxe izan da: euskaldunok eleberrigintzaren moda berriak eta ausartienak geureganatzeko gauzak izan eta izaten gabela. Eta ez hori bakarrik. Berritasunak berritasun eta modak moda, eleberri on batzuk ere idazti dizkigute euskal idazleek. Nahi genituzkeenak baino gutxiago: eleberriak, oro har, kopuruari begira, gutxi izaten dira gure tarteetan, ipuin edo olerkien parean. Hala ere, munduan zehar itzuliak, sarituak eta argitaratuak izan dira bat eta bi baino gehiago. Ez da gutxi. Ez gara, hain txarto, liga-txapelketa horretan ibili.

Erronka ez dago, beraz, batzuek maltzurkeriaz aldarrikatzen duten bezala moldagaitza eta laburra omen zaigun euskal hizkuntzan, eleberrigileen kantidad eta kalitatean baizik. Arazoa, bestalde, ez da eleberrigile gutxi ditugula. Baliteke, batez beste, inguruko literaturan baino eleberrigile gehiago izatea. Arazoa da, euskal eleberrigilerik onenetariko batek, Ramon Saizarbitoriak alegia, gogoratu digunez, euskaldunok, hain gutxi izanik, onenak izatera behartuta gaudela. Ez da erronka makala, eskergarria baino.

Lan egin dezagun, beraz, zaila den (zailena ote?) literatura genero hau lantzen. Asma ditzagun istorio interesgarriak. Horixe baita Txillardegi aurrelariari eta euskarari egin diezaiekegun ohorerik benetakoena.

\* \* \*

En el año 2007 celebramos el cincuenta aniversario de la edición de *Leturiaren egunkari ezkutua* de Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, primera novela moderna escrita en euskara. Con ese motivo Euskatzaindia organizó unas jornadas en la Universidad Vasca de Verano, la publicación de cuyas ponencias presentamos hoy ante ustedes.

Txillardegi inició este resto en un contexto dominado principalmente por novelas de corte costumbrista. *Leturia* es la primera novela vasca que trascurre íntegramente en ambiente urbano y en la que el conflicto que se nos narra se libra en el interior de un protagonista, angustiado por el existencialismo,

que vive, además, en frontera misma de la increencia religiosa. Leturia es un protagonista corriente e individualista, similar a muchos de los europeos de los años sesenta. Estos aspectos y otros de índole más estrictamente narrativa son los que se recogen en las ponencias de este libro, que el propio Txillardegi ha valorado como de mucho interés.


El camino iniciado por Txillardegi ha sido proseguido y superado por otros novelistas vascos, que se han ganado un merecido prestigio, incluso más allá de los límites de Euskal Herria. Los novelistas vascos se han mostrado abiertos a las influencias narrativas de la literatura universal y han demostrado, con creces, que el euskara posibilita, como cualquier otro de los idiomas, escribir textos literarios de calidad. El reto está en que los escritores vascos sigan dispuestos transportar, mejorando incluso la carrera, el testigo de los pioneros.



## **EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ. XV. BILTZARRAREN AGIRIAK**

2008ko martxoan, *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. Biltzarra* liburua argitaratu zuen Euskaltzaindiak.

Lan horretan, 2001ean, Bilboko Euskalduna Jauregian, Euskaltzaindiak burutu zuen XV. Nazioarteko Biltzarraren emaitza jasotzen da. Liburua Akademiaren Iker bildumaren 19. zenbakia da eta euskararen historia, hiztegegintza eta hizkuntza ereduei buruz egindako hitzaldiak, txostenak eta mahai-inguruak biltzen ditu.



2001eko irailaren 17tik 21era bitartean, Euskaltzaindiak bere Nazioarteko XV. Biltzarra egin zuen, Bilbon. «Euskalgintza XXI. mendeari buruz» lema-pean egin zen biltzar horretan Euskaltzaindiak gogoeta bideratu nahi izan zuen, euskararen iraganaz, orainaz eta geroaz. Horretarako, 9 hitzaldi eta 29 txosten aurkeztu eta eztabaidatu ziren hiru egunetan, eta bi mahai-inguru egin ziren.

Bilbon hizkuntzalari, hizteggigile, irakasle, kazetari, eta oro har, hizkuntzan adituak bildu ziren, xede nagusi batekin: XXI. mendearen atarian, euskararen iraganaz, orainaz eta geroaz gogoeta egitea. Euskal Herriko unibertsitateez gain –EHU, UEU, Deustuko Unibertsitatea, NUP, Baionako Unibertsitatea– kanpo-ko zentroetako ordezkariak ere izan ziren, hala nola Université de Genève, ILPGA – Institut de Phonétique, Valentziako Unibertsitatea, Helsinkiko Research Institute, Galeseko Unibertsitatea) eta baita UZEI, EIZIE, Elhuyar, AEK, HABE, Labayru, Mendebalde elkarteak, Kazeterm edota Bostak Bat erakunde eta taldeetakoak ere. Orotara, 288 lagunek hartu zuten parte.

Irailaren 17tik 19ra bitarte horretan, hiru arlo nagusi landu zituzten biltzarkideek, egun bakoitza alor bati eskainiz. Lehenengo egunean, hizkuntza ereduen arloa landu zen, hots, hizkuntza estandarra eta aldaerak –euskalkiak, ahozko hizkerak, esparru berezietan erabiltzeko bestelako ereduak...–. Bigarren egunean, hizteggigintza izan zen hizpide nagusia, eta horrekin batera euskararen normalkuntzaz ere hitz egin zen. Azkenik, hirugarren egunean, hizkuntzaren historia aztertu zen. Bestalde, mahai-inguru bi ere egin ziren: «Gaurko hizteggigintzaren premiak eta arazoak», batetik, eta «Lekuko euskarak eta euskara batua: elkarren osagarri ala arerio?», bestetik.



## PIARRES LAFITTEREN EKINTZABIDEAK (1920-1944) Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan

Otsailaren 21ean, *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944)*. *Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan* liburua aurkeztu zuten Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Bilbon, Akademiaren egoitzan. Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak, Ludger Mees, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordeak, eta Amelia Hernández Mata egileak. Liburua Akademiaren *Iker* bildumaren 20. zenbakia da eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Akademiaren arteko hitzarmenari esker argitaratu da.



*Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944)* liburua Amelia Hernándezen doktorego tesia da eta Joseba Agirreazkuenaga eta Javier Díaz Nociren zuzendaritzapean burutua da. Izenburuak adierazi bezala, Piarres Lafitte idazle lapurtarraren figura eta lana aztertzen ditu zehatz-mehatz. Lehenbiziz, testuinguru historikoan kokatzen gaitu egileak. Amelia Hernándezen hitzetan, «Lafitte pentsalariaren aro entzutetsuaren aurretiko urteak ekintza intelektualez josirik baino ezin dira egon; pentsalari, intelektual eta zientifikoez inguraturik baino ezin dira egon, ekintzok burutu ahal izateko. Izan ere, intelektual baten emaitzak emankorrak izanez joango dira besteeikiko ez adostasunek eta ezta-baidek eraginda, iritziok pentsalari horren pentsamoldea landuaraziko baitute. Erakusle gisa, Piarres Lafitteri buruzko gure lan hau, non jende ikasia baino ez zaigun agertuko irakaslearen sarekideten artean».

## LITERATURA TERMINOEN HIZTEGIA

Ekainaren 20an, *Literatura Terminoen Hiztegia* aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, egoitzan. Hiztegia Akademiaren «Hiztegiak» bildumaren zenbaki berria da –Hiztegiak 13– eta Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak egin du. Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzaz argitaratu da. Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Jean Haritschelhar, Literatura Ikerketa batzordeburuak; Lourdes Otaegi, batzordearen idazkariak; eta Gorka Martinez, BBK Fundazioaren buruak.

Andres Urrutia pozik agertu zen, «bide luze baten ondoren» Hiztegia kalean dagoelako. Hiztegiaren xede nagusia azpimarratu zuen –«Literaturaren teoria, historia, eta kritikaren berri emateko euskaraz garatu den lexikoa

# LITERATURA TERMINOEN HIZTEGIA

**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

**2008**

agertzea, finkatzea eta azalpen testuetan erabiltzea»– eta Hiztegia egin duten guztiak zoriontzeaz gain, Bilbao Bizkaia Kutzari eman zizkion eskerrak, «BBK-k posible egin duelako Hiztegi hau gure artean agertzea».

Gorka Martinez BBK Fundazioaren burua mintzatu zen ondoren. BBK-k Akademiari zor dion errespetua aipatu zuen –«hau bezalako egitasmoetan behin eta berriro hartuko dugu parte, Akademiak egiten duen lana ezinbestekotzat jotzen baitugu»– eta aurrerantzean ere Euskaltzaindiarekin elkarlanean aritzeko asmo irmoa erakutsi zuen.

*Literatura Terminoen Hiztegia* euskal literaturako terminoen hiztegiaren lehen edizioa eta saioa da eta haxe da bere xede nagusia: literaturaren teoria, historia, eta kritikaren berri emateko euskaraz garatu den lexikoa agertzea, finkatzea eta azalpen testuetan erabiltzea.

Hiztegi hau Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak 17 urteetan egin duen lanaren emaitza da. Izan ere, Literatura Ikerketa Batzordea sortu zen une beretik, hots 1991tik, literatura arloko lanetan erabiltzen den terminologia finkatzeko eta ikertzeko beharra azpimarratu zen. Batzordearen lehen bileretan hiztegiaren oinarritzko egitura eta sarrera zerrenda finkatu ziren, baita lan metodologia ere.

## **EUSKALTZAINDIA SARAKO EUSKAL IDAZLEEN XXV. BILTZARREAN: EUSKALTZAINAK BILDUMA BERRIAREN HASIERA ETA AURKEZPENA**

2008ko martxoaren 24an, urtero bezala Pazko astelehenez, Sarako Idazleen Biltzarra egin zen herriko polikiroldegian. Sarako Turismo Bulegoak eta Euskal Kultur Erakundeak antolatzen duten biltzarrera Euskaltzaindia urtero joaten da, eta hor bere azken argitalpenak erakusten ditu.

Euskaltzainak bilduma berria da, eta horren 1. liburukia 2007ko abenduan aurkeztu zen Senperen: Henri Duhauk paratu zuen *Gratien Adema, Zaldubi, saildu batzuen biziaz*.

Euskaltzainak bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratzeari ekin dio Akademiak.





## **EUSKALTZAINAK BILDUMAREN 2. ETA 3. ZENBAKIAK**

2008an, Akademiak bi liburu berri aurkeztu zituen Sarako Biltzarrean, hots: *Pierre Broussain. Sa contribution aux etudes basques*, Pierre Charrittonek idatzia, eta *Pierre Lhande. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak*, Jon Casenavek paratua. Aurkezpenean hauek izan ziren: Andres Urrutia, Jean Haritschelhar, Jon Casenave eta Pierre Charritton.

Aipatu bi liburuak Euskaltzaindiaren Euskaltzainak izeneko bildumaren 2. eta 3. liburukiak dira.

**PIERRE CHARRITTON**

**PIERRE BROUSSAIN**

**Sa contribution aux etudes basques**



---

---

**EUSKALTZAINAK BILDUMA  
EUSKALTZAINDIA**

**PIERRE LHANDÉ**

**YOLANDA**

**eta beste euskarazko idazlanak**

**Aintzin solasa, oharrak eta solas-ondoa:**

**Jon Casenave**




---

---

**EUSKALTZAINAK BILDUMA**  
**EUSKALTZAINDIA**

\* \* \*

Sarako Biltzarrak bi urtean behin bi idazle omentzen ditu. Aurten Txomin Peillen euskaltzain emeritua eta Xipri Arbelbide euskaltzain urgazlea izan dira hautatuak. Biek euren poza adierazi zuten: Txomin Peillenek saria euskarari eman diotela azpimarratu zuen eta Xipri Arbelbidek Sarako Biltzarraren xarma azpimarratu zuen, idazle eta irakurlearen arteko harremana sendotzen duelako.



## PEDRO DE YRIZARREK EUSKAL ADITZ LAGUNTZAILEARI ESKAINITAKO LAN OSOAREN AZKEN LIBURUKIA

Uztailaren 10ean, *Morfología del verbo auxiliar vasco (compendio/índice/index)* liburua aurkeztu zen Euskaltzaindiaren egoitzan. Liburua Pedro de Yrizar izan zenaren *Morfología del verbo auxiliar* liburu sortaren azken emaitza da: hamabosgarren liburukia. Liburu horietan guztietan euskal aditz laguntzailea bere azterketaren oinarri izan zuen Yrizarrek.

Euskal aditza eta euskalkiak dira Yrizarrek gehien jorratu zituen gaiak. Beti ere Louis-Lucien Bonaparteri jarraikiz, euskalki guztietako aditz laguntzailearen morfologia oso-osorik aztertu zuen eta liburu zehatzak osatu zituen, mapa ugariz hornituak. Liburu horiek guztiak Euskaltzaindiak argitaratu ditu.

*Morfología del verbo auxiliar vasco* liburu sorta honetan, Yrizarrek Koldo Artola ohorezko euskaltzaina izan du laguntzaile.



Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Jose Luis Lizundia diruzainak; Koldo Artola ohorezko euskaltzainak; eta Iñigo Yrizar Pedro de Yrizarren semeak.

Andres Urrutiak esan zuenez, «zin-zinez ohore handia da niretzat lan honen azken liburuari sarrera hitzak jartzea. Izan ere, eskuan du irakurleak euskal aditza osoa, lekuz leku eta euskalkiz euskalki, ederki atondua eta aurkeztua, ezin baztertuzko ikerketa baten bidez».

Koldo Artolak egindakoaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuen: «Perspektibarekin begiratuta, lehenengo liburuak argitaratu zirenetik denbora gutxi samar igaro bada ere, iruditzen zait lanak merezi zuela, zenbait lekutan gertatazen ari den transmisio-higaturaren tamalak, alde batetik, eta leku guztietan edo gehienetan euskara batuaren eraginak, bestetik, oso zail egingo bailukete etorkizun hurbilean arestiko urteetan bildu moduko informazioa eskuratzea».

Ondoren, Jose Luis Lizundia mintzatu zen. Gogora ekarri zuen bera ere «Yrizarren laguntzaileen sare»ko kide izan zela: «Euskaltzain oso, ohorezko edo urgazle askoren bidez, J. San Martin, L. Villasante, E. Erkiaga, J. M. Satrustegi eta beste baliaturik, izugarrizko harreman sare oparoa sortu zuen Pedro Yrizarrek, euskal herrialde guztietako informatzaileekin hornitua. Egunen baten, familiaren baimen eta laguntzarekin, “Pedro Yrizar Sarea” deituko niokeen harreman gutuneria biltzea, sailkatzea eta digitalizatzea litzateke egitasmo oso interesgarria; zeren eta gutunerian ez lirateke gaur aurkeztzen dugun Euskal Aditz Laguntzailearen bilduma osoari buruzko, tokian tokiko galdera-erantzunak bakarrik aurkituko, baita dialektologiari buruzko iritzi trukaketa aberasgarriak ere».


Iñigo Yrizarrek esker oneko hitzak izan zituen, «Liburu honek nire aitaren lana biribiltzen du»— bai Euskaltzaindiarentzat, bai eta bere aitari laguntza eman zioten guztientzat ere, bereziki Koldo Artolarentzat —«nire aitak esaten zuen Koldo bere oinak, bere eskuak eta bere burua, dena batera zela»—. Bere-ziki, Henrike Knörr zena izan du gogoan Iñigo Yrizarrek. Betidanik aitari emandako laguntzagatik, batetik, eta modu berezian, *Memorias de un vascólo-go* liburua kaleratzako egin zuen lanagatik: «Bera izan baitzen benetan liburu horren argitalpena posible egin zuena».

Amaitzeko, Yrizarrek egindako lana euskarri informatikoan ipintzeko konpromisoa azaldu zuen euskaltzainburuak.

### III. ONOMASTIKA JARDUNALDIEN AGIRIAK

Uztailaren 30ean, *III. Onomastika Jardunaldien agiriak* (Lizarra, 1990eko iraila) liburua kaleratu zuen Euskaltzaindiak. Egun horretan, egoitzan egin zen ekitaldi batean, eskura eman zitzaaien ale bana hauei:

- Txari Santiagori –Henrike Knörren alargunari– eta Eneko Knörri, Henrikeren semeari, Henrike Knörr izan baitzen argitalpen honen arduradun.
- Maria Ángeles Líbanori, argitalpena gainbegiratzeko Henrike Knörri laguntza eman zionari.



Esan bezala, Henrike Knörr zenak egin zituen liburu honen koordinazio lanak, Maria Angeles Lfbanoren laguntzarekin. Knörrek berak sortu zuen Akademiaren *Onomasticon Vasconiae* bildumaren zazpigarren zenbaki hau inprimategiko bidean utzita hil zen, eta ez zuen ikusi argitaratuta. Hori dela eta, zabaltzen hasi baino lehen, Akademiak Henrikeren familiari eman nahi izan zion liburua, baita Lfbanori ere. Iker sailburua zena gogoan edukitzeko ekitaldi xumea izan zen.

*III. Onomastika Jardunaldien agiriak* (Lizarra, 1990eko iraila) Akademiaren *Onomasticon Vasconiae* bildumaren 7. liburukia da. Liburu horrek, 1990eko irailean burutu ziren III. Onomastika Jardunaldietan aurkeztutako ponentzia eta komunikazio guztiak biltzen ditu. Lizarran egin ziren, herri horren Foruaren 900.urteurrenaren ospakizunekin bat eginez eta bertako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin.

Guztira, 27 lan jaso dira, Europa mailako aditu eta ikerlari puntakoen eskutik. Horietarik askok Lizarrerriko toponimia dute hizpide –euskarak eskualdean izan zuen bilakaera historikoa ere azaldu zuen Jose Mari Satrustegi zenak–, baina beste ikerketa-arlo batzuk ere nabarmendu daitezke.